

## **CARLOS I.aren EGOERA DELA-ETA PREMIAZKO INTERPELAZIO ZUZENA**

Josu Mirena Ruiz Martinek, EH BILDU udal taldeko zinegotziak, Udaltzaren Araudi Organikoaren 97. artikulua ematen dion aukera baliatuz, Carlos I.aren egoera dela-eta premiazko INTERPELAZIO ZUZEN hau aurkezten dio Donostiako alkate Eneko Goia Laso jaunari, hari buruzko azalpenak Udaltzaren eman ditzan.

### **JUSTIFIKAZIOA**

Pilar Arana delegatuak, azaroaren 14an auzotarrekin Udaltzar Aretoan egindako bileran, Carlos I.eko bariantea legealdi honetan ez zela botako jakinarazi zuen. Horrez gainera, bariantea botatzeak hirian mugikortasun arazoak sortuko zituela adierazi zuen. Bilera hau aho batez onartutako kontrol mozio baten harira egin zen: egia esan, bilera Amara Berrin bertan egin behar zen, Udaltzaren onartutakoan arabera -eta ez udaletxean-, eta deialdia ez zela ondo egin ere salatu zuten bizilagunek.

Udal Gobernuak, gainera, Donostiako sarrera-irteerak aztertzen ari diren batzordeen txostenaren ondorioak ezagutu gabe erabaki du Carlos I.eko bariantea ez ixtea.

Pilar Aranaren hitzak entzun eta gero, auzotarren haserrea begien bistakoa da. Izan ere, gobernu programan eta EAJ eta PSEren hauteskunde programetan Carlos I.eko biaduktoa kentzea agertzen da. Horren harira, amaratar batzuek atzo, azaroak 20, erregistro bidez sartutako idatzian beren ezinegona adierazi eta Amara Berrin bertan bilera ireki bat egitea eskatu dute.

Honegatik guztiarengatik, hauxe da behean sinatzen duen zinegotziak aurkeztutako premiazko

### **INTERPELAZIO ZUZENA**

\*Zer dela-eta Udal Gobernuak uko egin dio Carlos I.eko barianteari gobernu programan jasotakoa betetzeari?

\*Zer dela-eta ez du itxaron Udal Gobernuak Donostiako sarrera-irteerak aztertzen ari diren batzordeen ondorioak ezagutu arte? Zertan oinarritu da, beraz, Carlos I.eko bariantea botatzeari uko egiteko?

\*Zer dela-eta Udal Gobernuak osatzen duten alderdiek (EAJ-PSE), aurreko legealdian oposizioan

zeudenean biaduktua botatzearen aldeko protestaldietan parte hartzen zuten eta orain, aldiz, Udal Gobernuan daudela ez dute beren konpromisoa bete nahi?

\*Zer dela-eta lehen aipatutako bilera ez da Amara Berrin egin, Udalbatzak erabaki bezala? Zer dela-eta bileraren deialdia ez da ondo egin, bizilagunek salatutakoaren arabera? Auzoan bertan bilera irekia egiteko asmoa al du Udal Gobernuak? Egiteko asmoa badu, noiz? Ez badu egiteko asmorik, zergatik ez du bete nahi Udalbatzak onartutako mozioa?

Donostian 2017ko azaroaren 21ean

Josu Mirena Ruiz Martin  
**EH Bildu udal taldeko zinegotzia**